

MIRCEA ELIADE ETA ASKAPEN TEOLOGIA

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Orain dela aste batzu hil zen Mircea Eliade Amerikako Estatu Batuetako Chicago hirian. Bera joatean, erlijioen historiaren eta erlijioaren fenomenologiaren aztertzaile eta jakitun handienetakoa joan zaigu zalantzarik gabe.

1930ean Himalaya-ren maldetan, Ganges ibaiaren ertzean, yoga-ko ariektak eginez hasi zuen bere jakinbidea; Chicago-ko hiri handian burutu du, bertako unibertsitatean Erlijioen Historia irakatsiz. Bucarest-en jaioa zen Mircea Eliade, 1907an. Beraren gaztaroan Errumaniak bere independentzia nazionala lortua zuen, eta Mircearen belaualdi berria bere Herriaren berreraikuntza kultural eta nazionalaren bila zebilen.

Liburugintza zabala du Mircea Eliadek. Bere nobelak alde batera utzirik, hemen nabarmentzekoak ditugu bereziki Erlijioen zientzien alorrean idatzirikoak. Horietan nagusiena, bere azterketen bilduma eta sintesi gisa, *Histoire des*

croyances et des idées religieuses -gaztelaniara ere itzulia- da seguruenik. Baina erlijioaren fenomenologiara hurbildu nahi izan duen hainbatek lehen-lehenik topo egin du Mercea Eliade-ren obra hauekin: *Mito y Realidad*, *Lo sagrado y lo profano* eta *El mito del eterno retorno*. Baditu autobiografiako obra batzu ere, bereziki *Fragmentos de un diario* eta *La prueba del laberinto*: azken hau, Claude-Henri Rocquet-ekin elkarrizketa gisa idatzitakoa.

Erljioen historia, askapenaren jakintza?

Bere *Fragmentos de un diario* liburuan, 1967ko martxoaren 2an honako hau idatzi zuen Mirceak: "*La historia de las religiones, tal como yo la entiendo, es una disciplina "liberadora" (saving discipline)*". Askepenaren ideia etengabe ageri da bereak mitoei, erritoei eta sinboloei buruz egiten duen interpretazioan. Baina hemen nabarmentzen duena ez da erlijioek beraiek duten sal-

bamenezko edo askapenezko xedea, eta bai erlijioen fenomenologoak berak bizi duen askapenezko esperientzia. Seguruenik bi ikuspegiak doaz aski loturik elkarrekin.

Erljio bakoitzak era ezberdinez ulertu ohi du gizakiaren askapenezko bide eta helburua; baina erlijiozko adierazpenak -mitoak, sinboloak, teofaniak, erritoak, etab.- **dreazioak** dira, historiari eta munduari zentzua ematen diotenak. Zentzua emate hori, berriz, gizakiaren askapen-bidetzat hartzen du Mircea Eliadek.

Erljioen fenomenologiak, berriz, erlijiozko adierazpide horien barruko zentzua aurkitzea eta azaltzea du bere lana, erlijiozko fenomenoaren barne-egitura aurkitu ondoren. Horrela askapenaren bidea egiten omen du erlijioaren aztertzaileak berak. Erlijiozko jakinduria ez da orduan erlijioen ezagutza historiko hutsa: ez da jakintza soila. Askapenaren bidea irekitzea da.

Askapen-teologiarentzat eredu?

Mircea Eliade-ren jakinbidea eta pentsaera ezagutzen dituen harririk gelditu da agian, askapen-teologiarentzat argigarritzat jarri dudanean; horrelako zerbait adierazten bait du idazlantxo honen titulu nagusiak. Halaxe da; eta horixe azaldu nahi dut.

Aipaturiko **La prueba del laberinto** liburuan badu kapitulu bat oso adierazgarria, "Historia y hermenéutica" izenokoa. Bertan ematen du erlijioen ezagutza fenomenologikoaren metodologia, eta ezagutza horren baldintzak agertzen ditu.

Erljioen fenomenologoak, Mircea-ren eritzian, gizaki erlijiodunaren egoera ulertu nahi badu, horren barrura sartu behar du. "Labirintoaren esperientzia" du berak erlijioen barrutik egiten den bide hori, horien zentzua aurkitu eta azaldu ahal izateko egiten dena. Hermeneuta da erlijioen fenomenologoa, horien adierazpen zentzua aurkitzen saiatzen dena. Baina hermeneutika hori e. du kanpotik egiten, erlijiozko adierazideak **objetu** bihurtuz, erlijiozko esperientziatik baizik: "La hermenéutica es es descubrimiento del sentido cada vez más profundo de esas expresiones religiosas".

Aurrerxeago solaskideak galdetuko dio Mirceari: "La tarea hermenéutica es un trabajo de conocimiento, pero, cuál es el criterio de la verdad? Pienso, al escucharle, que si va preparada por un trabajo de ciencia "objetiva", la hermenéutica pide de por sí no unos criterios "objetivos", lo que nos llevaría a pensar que el sujeto está ausente delo que considera, sino, en definitiva, unos criterios de "verdad poética". Cuanto conocemos a través del acto de conocimiento, lo cambiamos, y a la vez somos cambiados nosotros mismos por nuestro conocimiento...". Mirceak erantzungo dio: "Sin duda...".

Guzti horrek ez al dizkigu burura ekartzen askapen-teologiaren metodologiaren hainbat azalpen? Erljiozkoaren zentzuaren bilaketa labirintoaren abentura da; barrura sartu behar da; labirintoaren bide bihurrian galduta ibili, horren zentzura, erdigunera iritsi arte. Labirintoaren erdigunean bai da jakinduriaren, bizitzaren eta historiaren zentzuaren gakoa; gizaki erlijiodunak bilatzen duen altxorra.

Zantzua, zentzua, zentzua

Labirintoa erlijiozko sinboloa da; askapenaren aldiko ekinbide edo praxia



berria, soziala, historikoa, sekularra da, eta ez da sinboloa, ekintza baizik. Baina askapen-praxi horrek ere badu labirintoaren izaerarik: bide bihurria, bidegurutzez betea, oztopoz josia. Mentura bat da askapen-praxi historikoa; mundua aldatzeko egiten dena, eta ez sinbolotan, errotan edo mitotan interpretatzeko bakarrik.

Askapenaren helburua da labirintoaren erdigunea, **zentzua**. Kristau fedearekin askapen historikoaren bidetik abiatu denarentzat labirintoaren erdiguneak zera trazedentea, historiaz haraindikoa adierazten du. Hain zuzen, bizitzaren eta historiaren zentru edo erdigune hura lortzeko **zentzua** du fededunarentzat askapen historikoaren aldeko borroak eta ahaleginak.

Zentzu horren **zentzua** edo seinaleak aurkitzen ditu fededunak bere askapen historikoaren bidean. Zantzua horietxek irakurtzea eta interpretatzea da askapen-teologiaren eginkizuna. Hermeneuta da funtsean askapenaren teologia.

Askapen historikoaren lan eta praxiaren barrutik eta praxi horretatik abiatuz egin behar dela askapen-teologia: horra abiapuntu metodologiko finko bat. Alde horretatik, fefecko mentura da askapen-teologiarena, teologoa bera askapenaren mentura horretan sartuta dabilenez.

Askapenaren teologoak ere "labirintoaren esperientzia historikotik" eta

horren barruan egiten du bere hermeneutika-lana eta bere teologiako gogoeta. Alde horretatik, erlijioaren fenomenologoarekin kidetasun handia du, ezagutzara iristeko metodologian. Baina badago aldegarantzizkorik ere bien artean; funtsezko aldea esango nuke. Labirintoaren proba egitean, kristauak aurretik du haria, labirintoaren erdigunera edo zentzura iristeko: hots, **fedea du**. Hari horixe du, hain zuzen, askapen historikoaren labirintozko bideko zantzuen zentzua interpretatzeko gakoa eta labirintoaren zentzura iristeko gidaria.

Gizon erlijioduna eta sekulartua

Guzti hori idatzi du Mircea Eliade-ren oroipena egiteko une honetan, berak erlijioen fenomenologiarako landu duen ezagutza -metodoa eta egiaren erizpidea baliozkoak iruditu zaizkidalako, askapen-teologiaren argitzeko ere.

Baina askapen-teologiak gogoeta-gai duen kristau fedea praxi **sekularrean** mamitzen da: hau da, askabide historikoaren dinamikan. Praxi horretan aurkitzen ditu dristau fededunak eta teologoak askapen trazedentearen zantzua; horien fedezko "zentzu trazedentea" interpretatzea da askapen-teologiaren eginkizuna. Alde horretatik, sekularpenaren munduan ditu ipiniak bere sustraia askapen-teologiak; eta ez adierazpen erlijiozkoen barruti espezifikoa.

Askapen-teologiarentzat erlijiozkoa ez da praxi historikoaren mundutik aparte eta berezirik dagoen barrutirean bat. Seguruenik hortxe datza Mircea Eliade-ren erlijio-fenomenologiaren eta askapen-teologiaren bereizkuntzarik funtsezkoenetako bat. Erljiozkoa ezkutatzeko tranpatzat hartzen du Mircea Eliadek sekularpena. Horregatik, gizon erlijiodunaren ikuspegitik ironiaz begiratzen dio berak gaurko pentsaera eta jorkaera sekularuari. Askapen-teologiarentzat, ordea, zera trazedentea edo harainkoa etengabe azaleratzen da askapen-praxi historiko eta sekularatuan bertan.

Sekularpenaren meritua da mundu profanoa ezkutatzaren zentzu erlijiozko mozorroa astindu izana. Ez dago zertan pentsaturik, iharduera eta kreaio historiko eta kulturazko profanoek erlijiozko mundu sakratuaren baten mozorro izan behar dutenik. Askapen-praxi eta kulturgintzaren autonomia eta beregainatasuna aitortzen ditu Askapen-teologiak; eta autonomia horretantxe aurkitzen du, hain zuzen, fedearen argitan zera trazedentearen zantzuen gardentasuna.

PAULO AGIRREBALTZATEGI